

Modulazio Diatonikoa Akorde Perfektuekin

MODULAZIOA KONPOSIZIO BATEN BARNEAN TONALITATE BATETIK BESTERA IGAROTZEKO PROZESUA DA.

HAINBAT MODU DESBERDIN ERABILTZEN DIRA MODULATZEKO. SEGURUENIK SINPLEENA **PRESTATU GABEKO MODULAZIOA** IZANGO LITZATEKE; BAT-BATEAN GERTATZEN DA, ASKOTAN **TONU-ERDIA** IGOAZ.


EHHH... ZER EGITEN DU ARGAZKI HONEK HEMEN?






GARAI KLASIKOKO KONPOSITOREEK, ORDEA, NAHIAGO ZUTEN PRESTAKUNTZA GEHIAGO EXIGITZEN DUEN MODULAZIO MOTA BAT: **MODULAZIO DIATONIKOA**. IZENAK ESATEN DUENEZ, BAI **TONALITATE ZAHARREAN** ETA BAI **BERRIAN DIATONIKOA** DEN AKORDE BAT ERABILTZEAN DATZA.

DEMAGUN **DO MAIOR** TONALITATEAN GAUDELA... HEMEN DITUZU DO MAIORREKIN AKORDEAK **AMANKOMUNEAN** (NABARMENDURIK) DITUZTEN BESTE TONALITATE GUZTIAK:


ADIBIDEZ, **SOL MAIORREKO I. AKORDEA** (SOL, SI, RE)...







...**DO MAIORREKO V.A DA!**



AKORDEREN BAT AMANKOMUNEAN DUTEN **TONALITATEAK** ERLAZIONATUTA DAUDE.



TONALITATE HAEK ALKARREN ONDOAN DAUDE **BOSTUNEN ZIRKULUAN**.



MODULAZIO MOTA HAU ARRAKASTAZ ERABILTZEKO KONPOSITOREAK AKORDE BEREZI HAU ERABILIKO LUKE **PIBOTE** BEZALA TONALITATE BIEN TARTEAN JARRIZ. **TEORIALARIOK AKORDE PIBOTE** HAU **TONALITATE BIEN** PARTE BEZALA IKUSTEN DUGU.



AKORDE PIBOTE HAU **BETI** IZANGO LITZATEKE **TONALITATE ZAHARREKO AZKEN AKORDEA...** ALTERAZIO BERRIAK **ONDORONGO AKORDEETAN** AGERTUKO LIRATEKE!